Ehunak, nagusiki, eskuz bilduko dira edo, bestela, eskaintzaileek proposatutako beste modalitate bat erabiliz. Bigarren kasuan beren eskaintzetan justifikatu beharko dute eta, ondoren, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartu beharko dute.

4.3- Erabiltzaileen kopurua eta jaso beharreko hondakinen kantitatea

Zerbitzua eskaintzeko erabiltzaileen eremua San Markoko Mankomunitatean bizi diren herritarren multzoa da, hau da, gutxi gorabehera 311.000 biztanle. Gaur egun 98 edukiontzi daude herri-bidean jarriak eta kontratuan zehar gehitzeko aukera izango da.

Salbuespenez stockak erretiratzeko denden eta biltegien eskaerei erantzun beharko zaie. Horretarako, aldeztu aurretik Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek jakin eta baimendu beharko dute.

Kontratuaren indarraldian San Markoko Mankomunitateak edukiontzien hasierako hornidura % 20 gehitzea eska dezake, kontratuaren prezioa igo gabe.

Era berean, kontratuan zehar zerbitzuaren arrazoi justifikatuak direla-eta, edukiontzien kopurua murriz daiteke eta ez da horregatik kontratuaren prezioa aldatuko.

Bildutako hondakinen kantitateari dagokionez eta erreferentzia modura, hona hemen zerbitzuaren azkeneko urteetan bildutako kantitateak:

2016. urtea: 1.359.346 kg
2017. urtea: 1.413.210 kg
2018. urtea: 1.434.710 kg

4.4- Bilketaren maiztasuna eta ordutegiak

Edukiontziak husteko gutxieneko maiztasuna Orri honek **I. eranskinean** xedatzen du.

Hasierako huste-maiztasunak kontratuaren indarraldian aldatu beharko dira edukiontzien betetze-abiadurari moldatzeko; beharrezkoa izanez gero, maiztasuna gehitu egingo da,

asetze-egoerak saihestu eta edukiontzietan botatzeko edukiera etengabe eskura mantentzeko. Dena den, horren ondorioz ez da kontratuaren prezioa gehituko.

Bestalde, erregulartasuna beharrezkoa den bilketa denez, eskaintzaileek berariaz zehaztuko beharko dute jaiegunetan programatutako bilketen kasuan konponbidea.

Era berean, muturreko sorrera-denboraldiak betetzeko nola indartuko den zerbitzua beren eskaintzetan zehaztu beharko dute. Horiek aldizka gertatzen dira, denboraldia aldatzen denean. Edukiontzien betetze maila kontrolatzeko soluzio teknologikoak eskaini ahal izango dira, gainezka egitea galarazteko eta bermatzeko ez dela hondakinik bildu gabe geratzen herritarrek erabilerara intentsiboa egiten duten uneetan. Bereziki balioetsiko da soluzio horiek bateragarriak izatea kode irekiko Sofia 2 (<https://github.com/Sofia2>) plataformarekin.

Kontratuaren indarraldian arropa gehiago bildu behar bada sortzaileen kopurua gehitu delako (urbanizazio berriak, jarduera sortzaile berriak, etab.) edo arroparen berreskuratze-indizeak gora egin duelako, eskaintzaileek aurrez ikusi beharko dute. Esleipena egiten denean, esleipendunak horregatik ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

4.5.- Bilketa-lanak egitea.

Bilketa-taldeak ehun-hondakinen edukiontziak zehaztutako bilketa-egutegiarekin bat hustuko ditu, alde batera utzita hustean edukiontzi bakoitzaren betetze-maila.

Halaber, arropa erabiliaren bilketa-taldeak edozein arrazoiengatik edukiontzien inguruan dagoen edozein hondakin erretiratuko du. Berdin dio lurrean botata edo edukiontziaren gainean egotea. Arropa erabilia izanez gero, edukiontzietako gainerako jantziekin bilduko da. Beste edozein hondakin bada, era berean, erretiratu eta etxeetako hondakinetarako edukiontzi hurbilenean botako da.

Edukiontzien manipulazte-eragiketetan herri-bidean botatzen diren hondakinak bilketa-taldea osatzen duten langileek berehala erretiratuko dituzte edo herriaren garbiketa-lanetan diharduten udal-langileak ez nahasteko beste hautabide bat aukeratuko dute.

Bilketa-ibilgailuak ustekabez edozein likido edo hondakin solido botaz gero, eremua berehala erabat garbituko du.

4.6.- Hondakinen garraioa. Bildutako materiala berreskuratu, birziklatu eta deuseztatzea.

Bildutako materialak esleipendunak bere eskaintzan proposatutako sailkapen- eta manipulazio-plantara garraiatu eta bertan deskargatuko dira. Hala, erabat debekatuta dago material horiek beste edozein puntutan deskargatzea, Mankomunitateak berariaz baimentzen duen kasuetan izan ezik.

Bildutako material guztia, baita edozein inpropio ere, esleipendunaren jabetzakoa izango da eta berreskuratzearen nahiz birziklatzearen prozesuan sor daitezkeen betebeharrak, eskubide eta erantzukizun guztiak bere gain hartuko ditu. Kudeaketa ingurumenaren ikuspegitik behar bezala egin beharko da, 22/2011 Legeak, uztailearen 28koak, Hondakinei buruzkoak; Euskadiko Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorrak eta gainerako ingurumen-araudiak xedatutakoaren arabera.

Eskaintzetan bildutako materiala nola kudeatuko den zehatz-mehatz deskribatuko da eta berrerabiltzera, birziklatzera, balioa ematera eta deuseztatzena bideratuko diren gutxi gorabeherako ehunekoak adieraziko dira. Deskribapen horiek materiala manipulatzeko, sailkatzeko eta tratatzeko planten ezaugarri nagusiak bilduko dituzte, baita amaierako norakoak eta halakoak ere. Hartara, bildutako gaien kudeaketa integrala bermatuko da.

Bestalde, eskaintzaileek eskaintzen azterketa ekonomikoan berreskuratu, birziklatu eta, ondoren, ehun-materiala kudeatuta beren ustiapen-kontuetan aterako dituzten irabazi ekonomikoak azaldu beharko dituzte. Helburua zerbitzuaren kostu orokorra murriztu eta bideragarritasuna zehaztea da. Ildo horri jarraiki, deuseztatze-kostuak esleipendunaren kargura izango direla kontuan hartu beharko da.

4.7- Edukiontzia jartzea eta pareko lanak egitea.

Esleipendunak bere bitartekoekin edukiontzia zehaztutako kokaguneetan jarri beharko ditu.

Era berean, esleipendunak zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko edukiontzia mugitu beharko ditu: beste kokaguneetan jartzea, berriak entregatzea, kentzea, berritzea, etab.

Era berean, behartuta egongo da instalatutako edukiontzia guztien garbiketa eta mantentze lanak egitera, erabilera eta garbitasun egoera bikainetan egon daitezen eta ez dezaten arriskurik eragin erabiltzaileentzat.

Horretarako, programazio xehatua aurkeztu beharko dute, prebentzioko mantentze lanetan egingo dituzten eragiketa guztiak barnean hartuta eta zehaztuz zer bitarteko erabiliko dituzten, zer lan egingo diren eta zenbatetik behin...

Edukiontzien kanpoko garbitasunaz arduratuko da, baita edukiontzioak kokatuta dauden ingurua garbi eta txukun edukitzeaz ere. Gutxienez hiru hiletik behin egin beharko dira lanok. Edozer dela ere maiztasuna, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek hala eskatuta, adjudikazioduna behartuta egongo da edukiontzia garbitzera, baldin eta garbitzeko ezarritako maiztasunaren barruan zikinkeria edukiko balute metatuta. Horrek ez du eragingo esleipenaren prezioak garestitzea. Mantentze lan horren barruan sartzen dira pintadak, grafitiak, publizitate kartelak eta halakoak kentzeko aldian-aldian egin beharreko lanak.

Lizitatzailaiek definituko dituzte jarduera denborak, anomalia hautematen edo jakinarazten den unetik, harik eta artatu arte. Epe horien barruan sartuko dira, halaber, prebentzioko mantentze lanetarako aurreikusitakoak.

Aurreko puntuetan adierazitako baldintza guztiak kontuan hartuta, eskaintzaileek zehatz-mehatz definitu beharko dituzte antolaketa-proiektua, bitartekoak eta langileak eta gutxienez honako puntuak garatu beharko dituzte:

- Bilketa-ekipoak deskribatzea, ibilgailu eta langileei dagokienez.
- Bilketa-ibilbideak, behar bezala justifikatuak, baita bildu beharreko edukiontzia ere. Pisuaren estimazioa.
- Zerbitzuen egutegia eta ordutegiak.

- Esleipendunaren instalazio finkoetan eskura dauden erreserba-ibilgailuak eta geldialdi programatueterako edo matxura-egoereterako aurrez ikusitako jardueraplana.
- Edukiontzia jarri, mugitu eta mantentzeko aurrez ikusitako ekipoak deskribatzea.
- Edukiontzien garbiketa eta mantenua
- Zerbitzua hobe deskribatzeko beharrezkoak diren datuak.

San Markoko Mankomunitateak zerbitzurako interesgarriak diren arrazoiengatik eskainitako zerbitzua edota eremua gehitu edo murrizteko eskubidea gordetzen du mankomunitateko udalek zerbitzuaren exekuzioa eskatzen dutenaren arabera. Halakoetan, esleipendunak ordaina jaso edo Mankomunitateak deskontatzeko eskubidea izango du, kasuak kasu. Ordaina une bakoitzean eskainitako prezio unitarioen arabera kalkulatu da eta KPI metatuarekin eguneratu da.

5.- EDUKIONTZIAK

Kontratuan zehar zerbitzua eskaintzeko kontratistak San Markoko Mankomunitatearen esku edukiontzia jarriko ditu eta horiei buruzko gastu guztiak bere kargura hartuko ditu, berritza barne.

Kontratu hau eta luzapen posibleak amaitu ostean, edukiontziek adjudikaziodunarenak izaten jarraituko dute.

- Lizitatuzaileek proposatutako edukiontzi ereduak adieraziko dute zerbitzuen memoria teknikoetan, haien ezaugarriak barnean hartuta (erabilitako materialak, neurriak, edukierak eta abar). Gutxienez, honako zehaztapen tekniko hauek bildu beharko dituzte:
- Egitura irmoa izango dute, egokiro tratatuta egongo dira korrosioaren kontra, osatzen dituzten elementu guztiak barnean hartuta.
- Deskarga egiteko ateak gutxienez itxitura bat edo segurtasun gailu bat izango du, manipulazioa galarazteko.
- Edukiontzi bakoitzak hondakinak sartzeko aho bat edo bi izango ditu.
- Edukiontzia zuriak izango dira, eta, Mankomunitateak aldeztu aurretik onartuta, informazio jakin bat edukiko dute: utzi beharreko hondakin mota, Mankomunitatearen logotipoak edo ezkutatuak, eta enpresa adjudikaziodunarenak. Beharrezkoa izanez gero, segurtasun banda islatzaile bat ere izango dute, harrapatzeko arriskuei eta bestelakoei buruz ohartarazteko.
- Hondakinak sartzeko, gutxienez aho bat izango dute aurrealdean, pilaketak saihesteko diseinatua. Era berean, diseinuak galarazi egin behar du materiala bertatik ateratzea.
- Hondakinak sartzeko ahoak behar adina berme izan beharko ditu, istripu arrisku posibleen aurrean.
- Edukiontzien edukiera erabilgarria 1.000 litro izango da gutxienez.

Instalatuako edukiontzia, esleipendunaren kargura izango direnak, honako baldintza teknikoak beteko dituzte:

- Edukiontzi bakoitzak aho bat edo bi izango ditu hondakinak sartzeko.

- Edukiontzia zuriak izango dira eta bota behar diren hondakin-motei buruzko informazioa izango dute, Mankomunitateak onartu ondoren.
- Hondakinak sartzeko ahoak arroparekin poltsak zailtasunik gabe sartzeko nahikoa handiak izango dira.
- Poltsak sartzeko ahoek zuloatik edukia ezin dela lapurtu ziurtatzeko sistema izango dute. Hala, lapurreta-arriskua gutxitzeko sistema izango dute.
- Hondakinak sartzeko ahoen diseinuak istripuen arriskuen aurrean nahikoa berme izango du.
- Edukiontziek gutxienez 1.000 litroko edukiera izango dute.
- Sendoak izango dira, bandalismoaren ekintzak, lapurreta-saiakerak, eguraldi txarrak, etab. jasateko.

Edukiontziei dagokienez, kontratistaren erantzukizuna izango dira hurrengo betebeharrak:

- Edukiontzien hasierako banaketa egitea eta egun edukiontzia dagoen puntuetan kokatzea. Jarri eta egungoak kentzea koordinatu beharko dira.
- Beharrezkoa izanez gero, kontratua garatzen ari den bitartean, edukiontzi berriak herri-bidean instalatzea, arestian aipatutakoaren arabera.

III. TITULUA LANGILEAK

6.- LANGILEAK.

Baldintza Teknikoen Orrian eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako gidalerro eta zehaztapenekin bat, kontratistak une oro zerbitzua eskaintzeko langileak izango ditu.

Zerbitzuaren buru eta gehieneko arduradun bezala kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen pertsona agertu beharko du. Pertsona horrek Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoekin zuzeneko harremana izango du.

Kontratistak kontratuaren xede den zerbitzua une oro eraginkortasunez gauzatzeko eta zenbait gorabehera betetzeko (hala nola bajak gaixotasun edo istripuarengatik, baimenak, sindikatu-lanak, oporrak, behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk, ustekabeko bajak eta absentismoa.) giza baliabideak izango ditu. Langileak lanera joaten ez direnean edo baja hartuta daudenean, kontratistak lanpostu horiek berehala beteko ditu.

Aurrekoari erreparatuz, eskaintzaileek beren proposamenetan kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egiteko langileen aurreikuspena aurkeztu beharko dute, baita langileak ordezkatzeko plana ere.

Zerbitzuen segurtasunerako langile guztiak behar bezala identifikatuak egongo dira. Hala, identifikazio-sistemarik eraginkorra proposatu beharko da.

Honakoak zorrozki bete beharko dira: 31/1995 Legea, irailaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena; eta lanean segurtasun eta osasunarekin zerikusia duen gainerako legeria, dagozkien aldatetekin.

Kontratastak gizarte-segurantzarekin, lanean istripuekin eta PFEZrekin zerikusia duten lan-obligazio guztiak bete beharko ditu. Ildo horri jarraiki, esleipendunak urtero urtearen hasieran Mankomunitateari ziurtagiriak bidali beharko dizkio eta horietan Herri Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin obligazioak eguneratuak dituela adierazi beharko du.

Enpresan greba edo gatazka izanez gero, San Markoko Mankomunitateak edo beste erakunde aginpidedunak zehaztutako gutxieneko zerbitzuak onartu eta bete beharko ditu.

San Markoko Mankomunitateak kontratuaren indarraldian eta hori amaitzen denean, esleipendunaren langileekin ez du lege- eta lan-harreman edo parekorik izango. Ildo horri jarraiki, lehiaketaren ondorioz sortutako obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

IV. TITULUA IBILGAILUAK

7.- IBILGAILUAK.

Esleipendunak zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak jarri beharko ditu.

Zerbitzua eskaintzera bideratutako bitarteko materialek une oro lan-plana puntualki garatu eta ustekabeei konponbidea emateko zerbitzua bermatuko dute.

Kontratarekin zerikusia duten bitarteko material guztiak San Markoko Mankomunitatearen zerbitzuaren esku denbora partzalean jarriko dira, hau da, bakarrik zerbitzua eskaintzen ari den bitartean.

Eskaintzaileek beren eskaintzetan zerbitzu desberdinetan erabiliko duten material mugikorra adieraziko dute. Argi eta garbi azalduko dute zerbitzuak behar bezala eskaintzeko materializat eta erreserba-materializat jotzen dutena, hau da, ohiz zerbitzuan ez egon arren, matxurengatik edo noizean behin zerbitzua indartu behar delako ordeztatu erabiliko dena.

Material mugikorra zerbitzuaren betekizunetarako egokiena izango da.

Zerbitzuari bideratutako material guztia eskaintzaileek deskribatu beharko dute eta horiek ahalik eta ongienen ezagutzeko beharrezkoak diren datuak adieraziko dituzte. Ibilgailuetan gasen igorpenak eta zaratak murriztera bideratutako neurriak bereziki baloratuko dira.

Herri-bidean lanean diharduten ibilgailu guztiak ezin hobeki ikusiko dira eta gutxienez eskaintzen duten gaikako bilketa-zerbitzuarekin identifikatuko dira. Derrigorrezko segurtasun-sistemak izango dituzte, ezin hobeki ikusiko dira eta hobe hauteman eta oinezkoentzat eta ibilgailuen trafikorako arriskuak saihesteko seinaleztapen-sistema egokiez hornituko dira.

V. TITULUA KONTROL-SISTEMAK ETA BESTE XEDAPEN BATZUK

8.- KONTROL-SISTEMA

Proposatutako antolaketaren barruan, eskaintzaileek San Markoko Mankomunitateak eskatutako datu guztiak garaiz eskuratzeko tresna arinak aurrez ikusi beharko dituzte. Horien helburua egindako lanak justifikatzea eta kontratatutako zerbitzuei buruz edo zerbitzuaren ustiapenarekin zerikusia duen edozein alderdiri buruz komenigarritzat jotzen diren kontrolak behar bezala egitea izango da. Tresnak eta sistemak (informatikoak eta bestelakoak) Mankomunitateak eskura dituenekin bateragarriak izango dira.

Aldi berean, esleipendunak bilketa-zerbitzuen zuzendaritzaren eta Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen artean komunikazio-sistema arin eta eraginkorra une oro ziurtatzeko beharrezko bitartekoak izango ditu

Kontratutako zerbitzua Mankomunitateak bere Zerbitzu Teknikoen bidez etengabe ikuskatu eta zainduko du. Ildo horri jarraiki, edozein unetan eta tokitan egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte. Egindako ikuskapenen arabera, Mankomunitateak agindu edo argibide zehatzak eman ditzake eta kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

Esleipendunak hilabete bakoitzaren lehenengo astean hileko txosten oso eta zehatza aurkeztu beharko du, aurreko hilean egindako lanak justifikatzeko eta gorabehera edo egoera aipagarriak jakinarazteko. Besteak beste, edukiontziko bildutako kantitateak sartuko dira. Txostenak telematikoki entregatu beharko dira Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek zehaztutako formatuan.

Lizitatuzaileek trazagarritasun memoria bat bildu beharko dute eskaintza teknikoan, jasotako hondakin guztiak barnean hartuz. Esandako memoria horretan, efikazen irizitako sistema deskribatuko dute, kontratuaren arduradunak hondakin guztien trazagarritasuna egiazta dezan: hasi biltzen den unetik, baimendutako plantara edo plantetara kudeatzera eraman, eta harik eta merkaturatu eta/edo azken hartzaileari entregatu arte, betiere azken horren izaera zehaztuz –fundazioa, kooperatiba, gobernuz kanpoko erakundea eta abar–. Kontratistak txosten bat egin beharko du urtero, kontratua gauzatzeko aldi osoan zehar bildutako hondakin guztien trazagarritasunaren xehetasunekin. Txostena urte natural bakoitzeko lehen hirurogei egunen barruan aurkeztu beharko zaie Mankomunitateko zerbitzu teknikoari, eta ez da beharrezkoa izango haren errekerimendua egitea aldez aurretik.

Bermatuko da modu integralean kudeatzen direla ehun hondakinak, oinetakoak eta bildutako gainerako hondakin berrerabilgarriak; hor barruan sartuko da berrerabileraren eta birziklatzearen barruan nahitaez sartzen den hautaketa, sailkapena eta tratamendua.

Bilketa honetan eskuratutako materialak mugaz gaindik bidaltzeko –EBren barruan zein kanpoan–, beharrezkoa izango da administrazio baimen eta/edo informazio guztiak izatea, 660/2014 (EE) Erregelamenduak, 2014ko maiatzaren 14koak, hondakinak lekualdatzeko 1013/2006 Erregelamendua aldatzen duenak, aurreikusitakoaren arabera, eskumena duten agintariek onartuta, beharrezkoa balitz. Hiru hiletik behin entregatu beharko zaio araudi hori zuzen betetzen dela egiaztatzeko dokumentazioa Mankomunitateari, kontratuaren exekuzio aldi osoan, eta ez da beharrezkoa izango haren errekerimendua egitea aldez aurretik.

Era berean, kontratu honen xede diren hondakin guztien jomuga plantaren edo planten deskribapen laburpen bat ere egin beharko da. Atal horretan, ehun hondakinez eta oinetakoez gain, edukiontziotan bil litezkeen gainerako hondakinak ere jasoko dira, baita desegoki edo errefus gisa sailka litezkeenak ere. Kontratuaren exekuzio aldian bildutako hondakinen tratamenduarekin lotuta (tokia eta modalitateak), memoria teknikoan jasotakoa aldatuko balitz, aldez aurretik ipini beharko dira jakinaren gainean Mankomunitatearen

Zerbitzu Teknikoak, eta, haiek irizten badiote nabarmen aldatzen dela hasierako eskaintza, uko egin ahal izango diete aldaketoi, baita interes publikoko arrazoiak direnean ere.

Mankomunitateak eskatu ahal izango du bidal diezaiotela bildutako kopuruen xehetasuna eta egikaritutako ibilbidea kudeaketa digitaleko bere sistemarekin bateragarria den formatu batean, edo kontratista bera izatea datuak horretarako apropos garatutako plataforma batean biltzen dituen.

Hileko txostena aurkeztea ezinbestekoa izango da Mankomunitateak hileko ziurtagiria ordaintzeko.

Kontratatik edozein unetan San Markoko Mankomunitateak eskatzen dizkion dokumentuak eta, bereziki, gizarte-aseguruei, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta materialari buruzkoak aurkeztu beharko ditu. Laburbilduz, oro har, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzailerak saihestera bideratutako jarduerak baimenduko ditu.

Horrez gain, esleipendunak San Markoko Mankomunitateak agindu ostean, zerbitzuarekin zerikusia duten txostenak eta azterketak prestatu beharko ditu.

VII. TITULUA. BESTE ALDERDI BATZUK

9.- HIRUGARRENEKIKO KALTEAK

Kontratua gauzatzen ari den bitartean gauzatutako eragiketen ondorioz, esleipenduna hirugarrenari sortutako edozein kalte edo galerez arduraduna izango da Horregatik, lanaren, segurtasun eta higienaren eta ibilgailuen trafikoaren arloan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiek osatzeko, eskaintzaileek beren eskaintzetan dagozkion kalte aseguru-polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta berariaz azalduko dituzte arriskuaren estaldurak, primak, kalte-ordainak eta zerbitzuaren gainerako gorabeherei aurre egiteko gainerako alderdiak. Betiere Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzailerak saihestuko da.

10.- ZERBITZUARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK

Esleipendunak bere kargura dituen langileek bildutako materialean nahastea, hori hautatzea edo beste edozein manipulazio egitea debekatuta dago.

Esleipendunaren kargura dauden langileek baliozko objektuak aurkitzen badituzte, Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoen eskura jarriko dituzte, ondoren, jabeak direla ziurtatzen dutenei bueltatzeko.

Axolagabekeriarengatik edo zuhurtziagabetasunarengatik nahi gabe objektu pertsonalak (besteak beste, giltzak, diru-zorroak, ordulariak, bitxiak, dokumentazioa, etab.) edukiontzia barruan erortzen direnean eta oraindik barruan daudela ziur dagoenean, esleipendunak lankidetzaz guztia eskainiko du objektu horiek berreskuratzeko, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek agindutako moduan.

Donostian 2019ko urriaren 01ean

Fdo. Pedro M^a Ugartemendia Garro
Mankomunitateko Zuzendari-Kudeatzailea

I. ERANSKINA: EDUKIONTZIEN KOKAPENAK / ANEXO I: UBICACION CONTENEDORES

UDALERRIA / MUNICIPIO	KOKAPENA / UBICACIÓN	FRECUENCIA RECOGIDA / BILKETAREN MAIZTASUNA
ASTIGARRAGA	CALLE NAGUSIA	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	DONOSTIA IBILBIDEA JUNTO RIO	
	JOSEBA BARANDIARAN	
	TRANBIA IBILBIDEA JUNTO AL SUPER DIA	
	POLIDEPORTIVO	ESKARIAREN ARABERA / A DEMANDA
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	AÑORGA-TXIKI	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	AVDA. DE BARCELONA, 19	
	AVDA. DE NAVARRA	
	AVDA. ZARAUTZ	
	BARATZATEGI, 23	
	BERTS. TXIRRITA PLAZA HARROBIETA	
	BERTSOLARI TXIRRITA-ALTZA	
	C/ ALDAMAR	
	C/ AMEZKETA	
	C/ EGIA – PARQUE CRISTINA ENEA	
	C/ SANCHO EL SABIO	
	DUQUE DE MANDAS	
	Pº ONDARRETA	
	ESTACION DEL NORTE	
	FRENTE GASOLINERA MENDIBURU - MARTUTENE	
	GARBIGUNE DE ATOTXA ERREKA	
	GARBIGUNE DE GARBERA	
	C/ GRAN VIA	
	C/ ISABEL II	
	JUAN CARLOS GUERRA-BIDEBIETA	
	JULIO URKIJO 44-BIDEBIETA	
	KARMELO ETXEGARAI	
	LARRAMENDI KALEA	
	LAU HAIZETA-ALTZA	
	MERKEZABAL	
	MIKEL GARDOKI-ATEGORRIETA	
	ORIXE CON ERROTABURU IBAIETA	
	PAGOLA	
	PARROQUIA TODOS LOS SANTOS-INTXAURRONDO	
	PASEO ALTZA N 12 B ALTZA	
PASEO COLON		
PASEO LARRATXO 16-ALTZA		
PASEO MIKELETE-ANTIGUO		

	PASEO SAGASTI EDER-INTXAURRONDO	
	PASEO ZARATEGI 68	
	PASEO ZUBIAURRE-INTXAURRONDO	
	PLAZA MARUGANE-ANTIGUO	
	RESURRECION M. ^a AZKUE	
	SECUNDINO ESNAOLA	
	SIERRA DE ARALAR JUNTO A OGIBERRI	
	PERURENA - PUNTO DE APORTACIÓN	
	ANOETA	
	POLIDEPORTIVO BENTA BERRI	
	POLIDEPORTIVO PIO BAROJA-ANTIGUO	
ERREENTERIA	ATARI EDER 6-AGUSTINAS	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	AVDA. GALTZARABORDA 67 AMBULATORIO	
	AVDA. GALTZARABORDA EROSKI	
	BERAUN JUNTO BAR JUANTXU	
	C/ ANDONI KORTA CENTRO	
	C/ DONOSTI ASTIGARRAGA	
	C/ PASAJES CON OIARTZUN	
	DARIO REGOYOS 10-FANDERIA	
	ESTACION RENFE-OLIBET	
	JUAN OLAZABAL FRENTE BAR NORAY	
	MARKOLA 2-AGUSTINAS	
	ORIA FRENTE CARNICERIA	
	SORGINTXULO FRENTE CONTENEDOR	
	URDABURU JUNTO CONTENEDOR	
POLIDEPORTIVO DE ERREENTERIA		
HERNANI	B ZIKUNAGA	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	C ELKANO FRENTE AYUNTAMIENTO I	
	C ELKANO FRENTE AYUNTAMIENTO II	
	GARBIGUNE DE HERNANI	
	ZINKOENEA I	
	ZINKOENEA II	
LASARTE- ORIA	BURUNTZA KALEA 7	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	FERRERIAS	
	PARROQUIA SAN PEDRO	
	ZONA DEPORTIVA MICHELIN	
	POLIDEPORTIVO	
LEZO	JAIZKIBEL	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	ZUBITXO KALEA 33	
	BARRIO ALTAMIRA, C/ TOMAS GARBIZU	
	POLIDEPORTIVO	
OIARTZUN	BARRIO ALTZIBAR KALE BERRIA	ESKARIAREN ARABERA / A DEMANDA
		ASTEAN HIRUTAN / 3

	BARRIO ARRAGUA AMBULATORIO	VIAJES SEMANA
	BARRIO ARRAGUA JUNTO FRONTON	
	BARRIO ITURRIOZ ENTRADA ZUBEROA	
	BARRIO UGALDETXO CAMPO DE FUTBOL	
	GARBIGUNE DE OIARTZUN	
	PARKING DE OIARTZUN	
PASAIA	C/ ZUMALAKARREGI JUNTO PARROQUIA	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	HERRIKO PLAZA-SAN PEDRO	
	LEZO BIDE 5	
	R . ARRILLAGA 1 JUNTO AMBULATORIO	
	TRINTXERPE	
URNIETA	IKASTOLA	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	PLAZA AYUNTAMIENTO	
USURBIL	AGINAGA AUZOA	ASTEAN HIRUTAN / 3 VIAJES SEMANA
	GARBIGUNE - PIKAOLA	
	PUNTO EMERGENCIA USURBIL	
	PUNTO EMERGENCIA ZUBIETA	
	POLIDEPORTIVO	